

## EDITORIALA

# Alternatibaz blai!

Gerturatzten ari da Alternatiben Herria izendatu dugun ekimena Bilbon ospatzeko eguna. Urriaren 24ko hitzordua gainean dugu, eta makina jende dagoeneko irrikan gaude alternatiba ezberdinak bistaratu eta haietaz jabetzeko eta antolatu diren ekitaldi, musikaldi, kontzertuak eta abarrez gozatzeko. Modu xumean sortu den ekimena –asko baliatu gara Iparraldeko lagunek Baionan antolatu zuten Alternatibaz– eragile askoren interesa eta borondatea erakarri du norberak bere eremuan bizi dituen esperientzia berritzaile eta sostengarriak plazaratzeko.

Azken urteotan biziki jasaten ari garen klima aldaketaren adierazleak geroz eta garbiago esaten digute bide honetatik ezin dugula jarraitu. Sistema kapitalistak bere muinean darman baliabide naturalen ustiapen basatiak klima aldaketa eragiteaz gain, injustizia soziala ere eragiten du. Jakien kontzentrazioa eta kontrola, herri xumeen menpekotasuna sortu eta pobretzea, energia fosilen agortzea, fracking-a, aberastasunaren banaketa, elikadura burujabetza, enplegua, tokiko txanpona, euskal kultura, eredu ekonomikoa, herrien arteko elkartasuna... eta beste hainbat gai izango ditugu hizpide egun horretan. Beste modu batera bizi eta harremanak izateko nahiak elkartuko gaitu egun horretan. Inork ez dezala pentsa gaia ez doala berarekin, hau gure egitekoaren ikuspegi nuklearra baita. Bere ekarpenak lan zentroko hesi itxietara mugatzen duenak asko gal dezake kale gorrian, bere bizi baldintzak erabat okertu daitezkeelako honelakoak diren erronkei denen artean aurre egiten ez badiegu. Erronka denona da, kolektiboa, baina norberak bere esparrutik abiatu behar du egingarriak dituen urrats xumeak ere emateko.

Pasibotasuna edota etsipena gure interesen kontrako jarrerak dira, eta kapitalismoa hortaz baliatzen da bere politika bidegabeekin jarraitzeko. Beste aldera begiratzek ez du balio, ez baitugu denborarik etsi-etsian geratzeko. Eduki eta dinamika honekin ELAren konpromisoa zalantzarik gabekoa eta irmoa da eta militante guztiok horretara lotu behar dugu gure munduak eta gure herriak ere etorkizun justuagoa eta zuzenagoa izan dezaten.

**ELA denuncia que la CEN, UGT y CCOO han recibido, sin concurso previo, 9,5 millones de euros desde abril**

## LOS PRIVILEGIOS DE LA CEN, UGT Y CCOO, INCOMPATIBLES CON EL CAMBIO

**P**asados casi dos meses del cambio de gobierno en Navarra, ELA ha hecho pública su preocupación por el hecho de que no se hayan dado pasos para el desmantelamiento del Sistema Navarro de Empleo tal como fue diseñado por el anterior gobierno de UPN en los años 90: un modelo clientelar, excluyente y opaco.

En opinión de ELA, la continuidad del Servicio Navarro de Empleo (SNE) como ente tripartito gestionado por CEN, UGT y CCOO es el más importante déficit del ejecutivo foral y recuerda que el cambio debe pasar inevitablemente por revisar este modelo perverso. En la misma línea, nuestro sindicato urge a terminar con el sistema de subcontratación de la formación continua desarrollado por UPN, que de abril a julio de este año ha repartido 9,5 millones de euros, e implantar un modelo público, transparente e integrador.

De hecho, ELA denuncia que a pesar de que en marzo entró en vigor un Real Decreto que obliga a sacar a concurso público los cursos de formación, la patronal navarra CEN y los sindicatos UGT y CCOO recibieron esta cantidad mediante convenios sin concurso antes del cambio de gobierno, de abril a julio.

### UN MODELO INCOMPATIBLE CON EL CAMBIO

ELA ha denunciado reiteradamente la necesidad de revisar toda la política relacionada con el mal llamado diálogo social. Durante casi 20 años los sucesivos gobiernos de Navarra han



En la imagen Iván Giménez y Mixel Lakuntza en la rueda de prensa ofrecida el 22 de septiembre en Iruñea para dar a conocer la opinión de ELA en torno a la situación del Servicio Navarro de Empleo tras el cambio de gobierno en Navarra.

destinado desorbitadas cantidades de dinero público a las organizaciones UGT, CCOO y CEN a través de materias como la inmigración, la salud laboral y sobre todo la formación de los cursos para trabajadores y trabajadoras.

(Sigue en la página 2)

**ELAren ordezkariak batek parte hartuko du irailaren 29tik urriaren 2a bitartean Parisen egingo den Kongresuan**

## EUROPAKO SINDIKATUEN KONFEDERAZIOAREN XIII. KONGRESUA PARISEN

**E**uropako Sindikatuen Konfederazioak bere XIII. Kongresua egingo du irailaren 29tik urriaren 2a bitartean Parisen, Frantzia, *Gizarte justu bat. Kalitatezko enplegua eta langileen eskubideak* lelopean. ELAren ordezkariak batek ere parte hartuko du kongresuan; bertan izango dira Adolfo Muñoz –idazkari nagusia–, Laura Gonzalez de Txabarri –nazioarteko arduraduna–, Saioa Igeregi –nazioarteko departamenduko kidea– eta Mixel Lakuntza –batzorde eragileko kidea–. Kongresuan, besteak beste, datozen lau urteetarako lan ildo nagusiak zehaztu eta zuzendaritza berria aukeratu beharko da –Luca Visentini italiarra proposatuko da Europako Sindikatuen Konfederazioaren idazkari nagusi kargurako–.

Laura Gonzalez de Txabarri azpimarratzen duenez, Kongresua oso une gogorrean dator Europako langile-jendearentzat. “Aurreko kongresutik hona egoera are eta gehiago oker-

tu da; murrizketa politikek jarraitu dute, eta horrek ondorio larriak eragin ditu: lan-baldintzen kaskartzea, soldata jaitsierak, eskubideen galera, prekarizazioaren orokortzea, desoreken hazkundea, pobrezia biderkatzea... Hau guztia gutxi balitz, beste hamaika erronka ditugu aurretik. Eta, gainontzekoak gutxietsi gabe, noski, bi nabarmenduko nituzke: klima aldaketaren eta merkataritza eta inbertsio librearen tratatu ezberdinen aurkako borroka”.

*ELA participará en el XIII Congreso que la Confederación Europea de Sindicatos ha organizado del 29 de septiembre al 2 de octubre en París*

**Lankidetu!**



**El régimen político que ha gobernado Navarra durante las últimas décadas ha sido una auténtica mina de oro para todas aquellas organizaciones que la han sustentado durante todo ese tiempo, como la patronal CEN o los sindicatos UGT y CCOO.**

ELA considera que son decisiones como la de revisar este modelo las que otorgan coherencia al cambio, y ésta es una tarea inaplazable que debería haber emprendido ya el nuevo Gobierno.

Sin embargo, en los últimos meses hemos podido comprobar con preocupación los siguientes hechos:

#### **a) Fondos del presupuesto general de Navarra para convenios con UGT, CCOO, CEN**

Entre abril y julio de 2015, el Gobierno de Navarra ha entregado directamente cerca de 10 millones de euros para orientación, empleabilidad y cualificación (nuevos eufemismos para camuflar las subvenciones a la formación continua para UGT, CCOO y CEN) mediante convenios directos a estas organizaciones.

Hay que recordar que estos fondos se asignaron mediante el fraude legal de modificar el Presupuesto de Navarra el 12 de marzo de 2015 (votos a favor de UPN y PSN; abstenciones de I-E y PP). A pesar de que los servicios jurídicos del SNE alertaron de que este cambio era irregular, el Gobierno hizo oídos sordos y acabó firmando los convenios bilaterales con CEN, UGT y CCOO (en total, 9,5 millones de euros entre abril y julio).

La decisión política del nuevo Gobierno de acabar con estas prácticas no puede esperar más; EH Bildu y Geroa Bai votaron en contra cuando estaban en la

oposición, por lo que ahora desde el Gobierno toca (junto al resto de fuerzas que sustentan el Ejecutivo) desmontar un apaño tan antidemocrático.

#### **b) Sobre los fondos del Estado**

Por otro lado, el nuevo Gobierno ha convocado concursos públicos para adjudicar los fondos para formación continua que provienen del Estado (otros 2 millones de euros). Obligado por un decreto estatal, el SNE ha diseñado un baremo a la medida de CEN, UGT y CCOO para que estas subvenciones no escapen a otras entidades, como se comprobará cuando se resuelva el concurso.

Tampoco es válida la excusa del Gobierno ("era urgente hacer la convocatoria para no perder las ayudas estatales"), ya que ha habido tiempo para reestructurar el SNE y redactar un baremo transparente lejos del control de esas organizaciones.

#### **NOMBRAMIENTO CONSENSUADO**

En concreto, la fórmula para designar a la nueva directora del SNE puede suponer un punto de no retorno: dicho cargo público del organigrama del Gobierno fue consensuado el pasado mes de agosto por el nuevo Gobierno, CEN, UGT y CCOO, algo que el Ejecutivo de UPN (o UPN y PSN) venía haciendo sin ningún empacho, pero que no puede permitirse quien quiera de verdad cambiar las cosas.

Sin entrar en la idoneidad de la persona designada, esta actuación indica que patronal, UGT y CCOO pueden seguir diseñando y controlando el SNE, incluida la formación continua, y asignando recursos públicos millonarios, práctica denunciada repetidamente por la Cámara de Comptos.

No vale la excusa de que así lo marcan los estatutos del SNE, aprobados en 1998 por el Gobierno de Miguel Sanz mediante el DF 148/1998 (modificados por el DF 15/2012). El Gobierno de Navarra tiene capacidad para disolver un organismo autónomo (como hizo el 12 de agosto con la Agencia Navarra de Emergencias). Lo que falta en este caso es decisión y voluntad política, a sabiendas de que una reestructuración completa del SNE supondría abolir los privilegios de CEN, UGT y CCOO en favor de una gestión enteramente pública y transparente.

¿No tiene este Gobierno el valor suficiente para defender estos principios? ¿O puede más el temor a enemistarse con esas tres organizaciones? El nuevo Gobierno debe dar una respuesta política a estas cuestiones de manera urgente.

### **POR UN SERVICIO NAVARRO DE EMPLEO DE GESTIÓN PÚBLICA, TRANSPARENTE Y DEMOCRÁTICO**

ELA ha venido planteando las siguientes líneas de trabajo en relación al SNE y, en particular, sobre la formación para el empleo:

a) Desarrollar una política propia de empleo, no aceptando que las decisiones sobre políticas formativas, de intermediación laboral, etc., estén supeditadas a las políticas del gobierno español.

b) Revisión completa de las políticas del Servicio Navarro de Empleo. Potenciación de los servicios públicos de empleo, abandonando el modelo de financiación a entidades privadas para la intermediación laboral.

c) Desarrollar un modelo de formación para el empleo que priorice el papel de los centros de formación profesional reglada, impidiendo que se asignen fondos a la impartición por los sindicatos y la patronal (o sus fundaciones o entidades).

ELA señaló en julio que en el acuerdo programático firmado por los cuatro partidos no existe un compromiso firme y claro por acabar con un modelo de subcontratación y sobrefinanciación de UGT, CCOO y CEN. Por ello, mientras esto perdure, no tiene sentido situar el debate en la participación en estos órganos de quienes hemos mantenido posturas críticas.

### **TOTAL SUBVENCIONES DIRECTAS MEDIANTE CONVENIOS CON CARGO A LOS PRESUPUESTOS DE NAVARRA DE 2015: 9.568.278 EUROS**

**CEN:** 2.027.002 euros

**UGT:** 3.887.366 euros

**CCOO:** 3.653.910 euros

A esta cifra se suman dos partidas sacadas a concurso mediante baremación fijada por el SNE (resoluciones 81E/2015 de 29 de julio y 82E/2015 de 7 de agosto), dotadas con 427.200 euros y 1.596.297 euros, respectivamente. TOTAL a concurso (aún por resolver): 2.023.497 euros.

## **LABURREAN / BREVES**



#### **• Aernnovak 150 langile kaleratu nahi ditu**

Aernnovako enpresa-batzordeak zuzendaritzak 150 langile kaleratu nahi dituela salatu du. Aeronautikaren sektoreko enpresa honetako langileen ordezkariak salatzen dutenez, enpresaren egoera ekonomikoa ona izan arren ezin da esan langileen egoera horrelakoa denik. ELAk Aernnovan duen delegatu eta enpresa-batzordeko presidentea Juan Carlos Gomezek salatzen due-

nez, "hedabideetan sarri askotan ikusten dira enpresa honek han eta hemen milioika eurotako kontratuak eta lanak lortu dituela. Hala ere, zuzendaritzak jakitera eman digunez produkzio lanaldearen heren bat inguru kaleratu nahi du. Hori gauzatuko balitz 150 lagun inguruz mintzatuko ginatke".

Gomezek gogor salatzen du zuzendaritzaren jarrera, erabaki horren atzean soilik helburu bat dagoela azpimarratuz: etekinak handitzea. "Zuzendaritzak esan digu enpresa 'arinago eta saneatuago' bat nahi duela burtsan aurkezteko. Jarrera hau, zoritxarrez, ez da berria. Urteak daramatzate Enplegu Erregulazio Espedienteen mehatxuekin, langileoi presio egiteko tresna gisa".

Enpresa-batzordeko presidentek administrazio publikoen inplikazioa eskatzen du. "Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurilaritzak dirutza bideratu dute enpresa honek izan duen formakuntzan eta sortu dituen lan-postuetatik. Orain proiektuaren zati handi bat suntsitu eta produkzioa beste herrialde batetara eramatearekin mehatxatzen

dute, lan-esku merkeagoa lortuta irabaziak are eta handiagoak izango direlakoan. Horregatik, bilerak egiteko eskatu diegu Legebiltzarreko eta Arabako Batzar Nagusietako talde guztiei".

#### **• La sentencia del ERE de Eusko Irratia abre la vía para realizar despidos colectivos en el sector público**

Iñaki San Andrés, responsable de ELA en EITB, ve con gran preocupación la sentencia estimatoria del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en torno al Expediente de Regulación de Empleo de Eusko Irratia. "La sentencia avala al Consejo del Administración de EITB, que bajo la excusa del recorte presupuestario y de regularizar las graves irregularidades en materia de contratación, acordó amortizar 30 puestos de trabajo en Eusko Irratia. Esta sentencia abre un grave precedente, ya que da cobertura al Gobierno Vasco en su estrategia de recortes y destrucción de empleo en el sector público".

"En definitiva, -añade San Andrés-, la sentencia permite al Gobierno Vasco

despedir a trabajadores/as del sector público utilizando el argumento del déficit presupuestario. El Gobierno Vasco no ha tenido ningún reparo en hacer uso de la reforma laboral de Rajoy para reducir la plantilla de Eusko Irratia, lo que pone en evidencia, una vez más, su política de empleo".

#### **• Kutxabank-ek ez du ELAekin bildu nahi enpleguaz hitz egiteko**

ELAk salatzen duenez Kutxabankek ez du langileen ordezkariarekin hitz egin nahi. ELAk Kutxabanken dituen ordezkariak bilera eskatu zioten erakundeko presidente Gregorio Villalabeitiani iragan irailaren 4an, bankuak garatu duen *Negozia Garatzeko Plan Berria* agiriarekin hitz egiteko. Hala ere, Villalabeitiak uko egin dio gure sindikatuarekin biltzea, plan horrek enpleguan eta langileen lan-baldintzetan ondorio larriak izango dituen arren.

ELAk gogorarazi nahi du 2010etik hona Kutxabankek zuzeneko 1.098 lanpostu suntsitu dituela, eta honi erantsi beharko genioke azpikontratetan, Gizarte-Ekintzan eta esternalizatu-tako enpleguan desagertu dena.

# KATALUNIA ETA EUSKAL HERRIA: ANTZEKOTASUNAK ETA DESBERDINTASUNAK



Inboluzio autonomikoa geldiarazteko Kataluniak eta EAEK Estatut-a eta Estatutu Politikoa aurkeztu zuten Madril. Kataluniako testua Estatuak birritan "kimatu" zuen (Alfonso Gue-rrak *cepillar* hitza erabili zuen): Lehe-nengo, Zapaterok Kongresuan, eta bigarrenik, PPren errekurtsioa medio, Auzitegi Konstituzionalean. Hasierako proiektua erabat desitxuratu zuten. Estatuak ez zuen CiU eta orduko hiru-ko koalizioa ase zezakeen akordiorik lortzeko aukera bat ere eman.

Gizarte katalanaren erreakzioak eta mobilizazioak, ordea, bestelako mugarri politiko batzuk ezarri zituen, Katalu-niako politikorik kontserbadoreenak kostata onartzen zituztenak. Mobiliza-zio sozialak ez zuen zalantzarik egin batik bat indar politiko katalanak inter-pelaterakoan.

Zein ondorio atera dute? Espainiak ukatu egiten diela beren bizitza ekono-miko, sozial eta kulturalerako ezinbes-tekoak diren gaietan erabakia hartzeko eskubidea. Estatuak arbuaitu egin ditu katalanen zilegizko helburuei irtenbi-dea emateko aukera guztiak: Katalu-niak estatuak agindutakoa bete behar du, eta hautetsiek hala egiten ez badu-te, zigorra jasoko dute, espetxea zein inhabilitazioa. Katalunian erabaki zuten pedagogia egingo zutela espainiarren ukapenez baliatuta; espagnolismo zaharkitu, ergel eta antidemokratikoak sekulako abagunea eskaintzen zuela

ikusi zuten. Pedagogia horri esker ordurarte nazionalista izan ez ziren hainbat herritarrek ere independentis-moaren bidetik jo zuten. Beren gain hartu zuten eskubidedun herritar gisa, ez menpeko bezala, jokatzek zekarren ardura.

Euskal Herrian esan genezake Esta-tuak are erreakzio okerragoa izan due-la, ez baitu gatazka bortitz baten ondorioak zentzuz bideratzeko asmo-rik; agian bai baitaki bere posizioarekin euskal agenda politikoa blokeatu egi-ten duela, agenda hau gai batek bete-zen duelarik, iraganaren kontakizuna zein izan behar den.

Euskal Herriak ere Espainia uniforme bat topatu du aurrean, LOAPatik hona neozentralista, PP zein PSOEek agintzen duela ere ñabarduririk gabea, eta egu-netik egunera gero eta inbolutiboagoa, dena berdintzeko tresna behinena oinarritzko legeak direlarik. Estatu hau krisiaz baliatu da autogobernuari are gogorrago erasateko, politika ekono-miko eta sozialaren funtsezko kontue-tan. Bada, PSOEek ukatu zuen espainiar Gorteetan Legebiltzarrak bozkatutako Estatutu Politikoa eztabaidatzeko auke-ra; katalanen estatutua baino lehenago gertatu zen hori. Ibarretxe Lehendaka-riak testuaren defentsa oso duina egin zuen, baina argi dago gakoa ez zego-e-la argudio eta arrazoietan. Plan hark gabezia oso handiak zituen; aurrez par-te-hartze prozesurik ez zuen izan, eta gure herrian ez zen aliantza sendorik bilatu. Aurrerago ikusi zenez, gainera, Lehendakariak bere alderdiaren babesik ere ez zuen.

Estatutua giltzapean gorde zen. Ez zen kontsultarik egin, ezta prozesurik ere. Sekula izan ez bailitzan desagertu zen. Hauteskundeak izan ziren, eta izan dira. Ahaztuta dago orain. Agerto-ritik pertsona batzuk atera ziren, eta beste batzuk sartu; hauekin alde-biko akordioak eta Espainiarekiko transber-tsalitatea aldarrikatu dira berriro. PSOE-rekin edo PPrekin akordioa bilatu nahi horrekin batera instituzionala ez den guztiarekiko mesfidantza da nagusi. Parte hartze sozialik ez da behar; ez da adostu behar inorekin erronka gaitz

bati, prozesu soberanistaren garapenari alegia, nola aurre egin.

Autonomismoaren egin zuen. Estatuak ito zuen, planifikatutako pro-zesu batean. Baina ebidentzia hau ez da onartzen, eta Jaurlaritzaren eta EAJ-ren ipar politikoa da oraindik. Autogo-bernuia ez da garatzen ari; areago, gero eta murriztagoa da. ELAren ustez erreferentzia autonomistari eusten bazaio euskal mundu ekonomikoaren interesengatik da, sektore hau Espai-nian oso gustora baitago. Hortxe dugu prozesu katalanaren aurka Círculo de Empresarios Vasco delakoak agertu duen posizio oldarkorra, bertan Jaurla-ritzako zenbait sailburu ohi kide dire-larik.

2015. urtea aurrera doala, ELAren ustez espainiar Estatuan ez da prozesu eratzailerik hasiko. Lurraldetasunari buruzko eztabaidarik balego, bere emaitza dagoeneko ezagutzen duguna besterik ez da izango. Prozesu katala-naren abiapuntua horixe da: ondorioz-tatu dute beren helburuak gauzatzea Katalunian ebatziko dela, eta herrita-rrengan dagoela erabakia.

EAEn, ordea, zikloak errepikatu egi-ten dira, helburu estrategiko eta takti-ko-rik gabe. Legebiltzarrean beste ba-tzorde bat osatzea berriro hutsetik has-tea da; legealdiak betetzea beste xede-rik ez du. Hain zuzen, legealdi hau agortu da PPrekiko harreman "diskre-tu"tik emaitzen bat lortuko zelako itxa-ropenez; haatik, ez da etekin bat bera ere izan, etengabeko atzerapausoak baizik.

Eusko Jaurlaritzak, Batzorde horreta-rako, autogobernuari buruzko txosten sorta bat egin arazi du. Txosten hauek ere ez dute ezer berririk adierazi. Ezta-baida zaratatsua pizten dute, baina ondorio politikorik ez. Zenbat aldiz egin izan dira halako txostenak? Orain-go hauek aurkezterakoan Jaurlaritzak esan du "autogobernuia krisian" dago-ela, hau lehenagotik gauza jakina ez bailitzan. Jaurlaritzaren "oposizioa" Madrilan aurrean Auzitegi Konstituzio-nalean helegiteak sartzea izan da, bes-terik ez; gaurko auzitegia ez da inondik ere inpartziala. Duela hogeit urte baino

areago politizatu da; eta dagoeneko urte haietan Eusko Jaurlaritzak esan zuen "inpartziala ez beste edozer" zelako ez zuela auzitegi harengana joko.

Jaurlaritzak badaki PPrekin edota PSOErekin akordiorik lortzekotan ezin-bestekoa dela euskal posizio politikoa-ri amore ematea; halaxe gertatu zen enplegu-politiken eskumena Madrildik jaso zenean.

Zein da, azkenean, Kataluniarekiko desberdintasun nagusia? Ekonomi Ituna. Deigarria da ez dela bat ere gar-dentasunez kudeatu, eta zergak arau-tzeko ahalmena errenta altuei, enpre-sarien eta kapital errentei mesede egi-teko baliatzen dela. Ez da aipatzen, propio, Espainia komunikabideen laguntzaz (besteak beste, El Pais egun-kariarena) fronte politiko bat osatzen ari dela Kupoaren sistema desegiteko.

ELAren ustez, Katalunian irailaren 27ko hauteskundeetara deitzera era-man duten ondorio politikoa neurrits-koak eta zuzenak dira. Irabaziko ahal dute, prozesua indartzeko. Beldurra gairidituko ahal dute, hau izanik esta-blishment politiko, mediatiko eta eko-nomiko espainiarren arma bakarra (oso arriskutsua, izan ere). Kontserba-doreek betidanik defenditu izan dute beren pribilegioak mantentzen dituen status quo-a beldurra astinduz. Kontua da, Katalunia independente batean ere, bankuek dirua irabaztea beste hel-bururik ez dutela izango, Coca Cola bizitzaren txinparta saltzen saiatuko den bezalaxe. Beldur hori gairiditzeko ELAren babes apala eskaini nahi genie-ke independentista katalanei.

Katalunia eta Euskal Herriaren estra-tegia desberdinak ez dira Estatuak emandako tratua eraginez etorri; biek tratua txar bera jaso dute. Desber-dintasuna, aldiz, geurean dago: setaz errepikatzen dira zapuztutako estra-tegiak eta ausardia politikorik ez dago.

**Adolfo Muñoz Txiki,**  
**ELAko Idazkari Nagusia**  
(Oharra: artikulua  
irailaren 27an Katalunian egin ziren  
hauteskundeen aurretik idatzita dago)

## LABURREAN / BREVES

### ● El Gobierno de Navarra anuncia la devolución de la paga extra del 2012

El Gobierno de Navarra ha decidido realizar el pago de la paga extra que se quitó en diciembre del 2012 a las y los trabajadores del sector público. Mitzel Lakuntza, responsable de ELA en Navarra, muestra su alegría por esta medida y recalca que nuestro sindicato seguirá luchando por los derechos de las y los empleados públicos.

"Nuestro objetivo es activar la negociación colectiva para, por un lado, lograr unas condiciones laborales que se precarizaron sobre todo durante el anterior Gobierno y, por otro, una subida salarial que garanti-

ce la recuperación del poder adquisitivo anterior a la congelación del 2009".

### ● "Badirudi Arkadia Zoriontsuan bizi garela..."

Gizarte politiken arduradun Mikel Novalen ustez, oso urruti gaude irailaren 24ko plenoan Iñigo Urkullu lehendakariak aurkeztu zuen egoeratik. "Errealitatea ezagutu gabe norbaitek Urkulluk Legebiltzarrean esandakoak entzungo balitu, pentsatuko luke Arkadia Zoriontsuan bizi garela. Ba, zoritxarrez, hori ez da egia. Langabezia-tasa izugarri altua da, gizarte-babesa gero eta urriagoa, prekarietatea zabaltzen ari da, enplegu gutxi sortzen da eta sortzen dena orokorrean

kalitate txarrekoa da, gehien dutenen eta gutxien dutenen arteko tartea gero eta handiagoa da... Aski da estatistika ofizialei kasu egin ondorioztatzeko Lehendakariak azaldu zuen argazkia gezur hutsa dela".

"Ez da egia -gaineratzen du Novalek- enplegua Jaurlaritzaren lehenasuna denik, eta are gutxiago bere kalitatea. Gobernuia zuzeneko zein zeharkako enplegua bere administrazioan bertan murrizten ari da, eta Sozietate Publikoetan lanpostuak suntsitzeko irizpideak ematen ditu (adibidez, EITBn), baita administrazioarentzat lan egiten duten azpikontratetan ere. Enpleguaren kalitateari dagokionez, salatzea da Jaurlaritzak arlo publikoan lanaldi partzialeko kontratuak lehenesten dituela eta programak egiten dituela arlo pribatuan kontratu prekarioak diruz laguntzeko".

La iniciativa Alternatiben Herria-El Pueblo de las Alternativas ha elaborado un programa que llenará el 24 de octubre Bilbao de actividades para todos los públicos

# PROGRAMA DEFINIDO



## AURKEZPENAK HIRI ETA HERRIETAN

Irailaren 24an Alternatiben Herria bultzatze-ko bilkura egin zen Bilboko Unamuno plazan. Bertan bildutako lagunek urriaren 24an egingo den ekimen honen inguruko informazioa zabaldu zuten. Aste honetan bertan aurkezpen gehiago ere egingo dira. Irailaren 30ean lehendabizi Alternatiben Herria Donostian aurkeztuko da, 16:00tan Amara Bai elkartearen egoitzan; asteazken horretan bertan aurkezpena Iruñean izango da, 19:00tan Alde Zaharrean dagoen Katakarak liburu-dendan. Urriaren 11n, igandea, aurkezpena Basaurin izango da, herriko festak direla-eta antolatatu den jaialdi txiki baten inguruan. Azkenik, oraingoaz itxita dauden aurkezpenei dagokionez, urriaren 14an hitzordua Gasteizen izango da, 19:30tan Monterroso Jauregian.

La iniciativa Alternatiben Herria-El Pueblo de las Alternativas ya tiene programa. Un programa lleno de actividades que el 24 de octubre llenará las calles de Bilbao de numerosas experiencias y ejemplos de que es posible construir un modelo alternativo al actual. El día comenzará a las 10:00, con el acto de bienvenida que se organizará en la carpa central, situada en el Arenal. A partir de ahí están programadas numerosas actividades durante todo el día repartidas en las diferentes carpas, ferias y locales que habrá en todo el centro de Bilbao.

**ETA GAINERA...** *Misela, sotoen foronak, kale konposizioa, bertan, por eta eldiko gaurak, herri-herriak, herri-herriak, eta beste herriak gaurak!*  
Animatu eta parte hartu!

**Y además...** *Misela, dute foronak, adreñak, dute, teatro, poros de comida y bebida, comida popular, actividades para niños y niñas... ¡y muchas cosas más!*  
¡Animáte y participa!

**K KARPAK**

- 1- auzoEKOonomia
- 2- Natura Gure Gaita
- 3- Bizitza Duintak eta Antizak
- 4- Arragoa
- 5- ZENTRALA

**L LOKALAK**

- 1- Esperientzia gelak
- 2- Bilborok
- 3- Zirikak
- 4- Altxaporrue
- 5- Boluntaria
- 6- Ekotekeak
- 7- Hika Ateneo

**A AZOKAK**

- Azoka 1: Elkadura Burujabetza
- Azoka 2: Ingurumen azoka
- Azoka 3: auzoEKOonomia
- Azoka 4: Arragoa
- Azoka 5: Garagardio Azoka

**Resumen PROGRAMA Laburpena**

**ALTERNATIBEN HERRIA**

**BILBO**

**URRIAK 24 DE OCTUBRE**  
LARUNBATA \*\*\* SÁBADO \*\*\*

**BIZITZA BURUJABEA**  
\*\* ESKUBIDE OSOZ \*\*

**VIDA SOBERANA DE PLENO DERECHO**

**#ALTERNATIBENHERRIA**

Carta de los derechos sociales **euska! herriko eskubide sozialen Karta**

## IKUSI MAKUSI... ZER IKUSI?

Ba nahi adina gauza! Eta zer ikusi jakin ahal izateko aski da ELAren (<http://www.ela.eus>) edo Alternatiben Herriaren (<http://alternatibenherria.eus>) interneteko ataletan sartzea. Izan ere, bertan urriaren 24an egongo diren ekimen nagusien zerrenda jasotzen duen triptikoa eskuratu ahal izango da. Egitaraua jaitsi, irakurri, intereseko ekitaldiak apuntatu eta zabaldu!

La publicación oficial del programa es un nuevo paso dentro del proceso participativo puesto en marcha para la elaboración de esta iniciativa. Un proyecto que va calando entre cada vez más personas, como lo demuestra el éxito de la campaña de financiación popular puesto en marcha el 16 de septiembre. A la hora de enviar este *Astekaria* a imprenta ya se habían recaudado en poco más de una semana 7.600 euros. Una cifra muy importante, pero todavía insuficiente para poder afrontar todos los costes que requiere un proyecto de este tipo.

**Un día también festivo.** El 24 de octubre tenemos una magnífica ocasión para dar a conocer infinidad de iniciativas que tienen como objetivo conseguir un sistema mejor, donde el ser humano sea el centro de la vida. Pero, además, Alternatiben Herria-El Pue-

blo de las Alternativas también es una magnífica oportunidad para pasarlo bien. Por todo el centro de Bilbao habrá animación callejera, puestos de comida y bebida, música, actividades para niños y niñas... Incluso quien quiera alargar el día hasta que el cuerpo aguante también tendrá ocasión. Para ello, después del acto final que comenzará a las 19:30 en la carpa principal habrá una romería a cargo de Kaxianoren Alabak y un montón de sorpresas más.

Apenas quedan cuatro semanas para Alternatiben Herria-El Pueblo de las Alternativas. Cuatro semanas de frenética actividad para que el 24 de octubre sea un éxito. Sin olvidar, por supuesto, que a partir del 25 de octubre habrá que seguir trabajando en nuestras alternativas al actual modelo social, político y económico.

[www.ela.eus](http://www.ela.eus) / @ELAsindikaturia / ELA-Facebook

**ELA** **astekaria**

Barrainkua 13, Bilbao  
Tel. 94 403 77 00  
Fax 94 403 77 66  
Dep. legal BI-199-00

[www.ela.eus](http://www.ela.eus)

Franqueo concertado  
nº 08/207